Bilbao, 28 de mayo de 2020

Estimado/a compañero/a:

La Junta de Gobierno en sesión celebrada en el día de ayer, 27.05.2020, ha decidido avanzar en las condiciones de reapertura de las sedes colegiales, en el marco de las siguientes condiciones, <u>**a partir del próximo lunes 01.06.2020**</u>,

**1.- Sede Central de Rampas de Uribitarte 3:**

Se reabren los **servicios administrativos de la 1ª y 2ª planta** de la sede colegial, así como la **Biblioteca,** con limitaciones de aforo que se indicarán en cada caso.

<u>**El Horario de la sede central del Colegio será de Lunes a Viernes de 09.00 h a 15.00 horas.**</u>

Se podrán utilizar las **Salas de reuniones** de la 1ª y 3ª Planta mediante un sistema de **reserva previa** llamando al teléfono del Colegio (94.435.62.00), con una duración máxima de 1 hora por reunión y un aforo limitado indicado en la puerta de la sala y del que se informará en el momento de realizar la reserva.

El resto de las dependencias de la sede, salas de reuniones y conferencias se mantendrán aún cerradas, **incluidos todos los WC del edificio**.

Se mantienen suspendidos todos aquellos actos, cursos, jornadas o reuniones, que estuvieren previstas realizar en la sede colegial en las próximas semanas.

El uso de la **Biblioteca** tendrá un aforo limitado, que afectará al número de ordenadores y puestos para consulta de obras y textos, y la ubicación de los usuarios se determinará por la persona responsable de la Biblioteca. Se establece un periodo máximo de estancia diario en la misma de 1 hora por usuaria/o.

**Los usuarios no accederán directamente a las estanterías** para la elección de las obras, sino que

Bilbo, 2020ko maiatzak 28

Lankide estimatua:

Gobernu Batzordeak, atzo (2020.05.27) egindako bilkuran, elkargoaren egoitzak berriro irekitzeko prozesuan aurrera egitea erabaki du, <u>***2020.06.01etik aurrera, hau da, datorren astelehenetik aurrera***</u>**.**

**1.- Egoitza nagusia (Uribitarteko aldapak kaleko 3. zenbakia):**

Elkargoaren egoitza nagusiko **1. eta 2. solairuetako administrazio-zerbitzuak** irekiko dira berriro, baita **Liburutegia** ere, kasu bakoitzean adieraziko diren edukiera-mugekin.

<u>**Elkargoaren egoitza nagusiaren ordutegia astelehenetik ostiralera hau izango da: 09:00etatik 15:00etara.**</u>

**1. eta 3. solairuetako bilera-gelak** erabili ahal izango dira, aldez aurretik **erreserba-sistema** baten bidez, Elkargoaren telefonora deituta (94.435.62.00). Bilerak ordubete iraungo du gehienez, eta aretoko atean adierazitako edukiera mugatua izango du. Erreserba egitean, horren berri emango da.

Elkargoaren egoitzaren gainerako gelak, bilera-gelak eta hitzaldiak itxita egongo dira oraindik, **eraikineko komun guztiak barne**.

Aurretik esan bezala, bertan behera geratuko dira hurrengo asteetan Elkargoaren egoitzan egitea aurreikusita dauden ekitaldi, ikastaro, jardunaldi edo bilera guztiak.

**Liburutegiak** edukiera mugatua izango du, eta obrak eta testuak kontsultatzeko ordenagailuen eta postuen kopuruari eragingo dio. Erabiltzaileen kokapena liburutegiko arduradunak zehaztuko du. Eguneko egonaldia gehienez ordubetekoa izango da erabiltzaile bakoitzeko.

| | |
|---|---|
| deberán ser solicitadas a la persona responsable de la biblioteca. | **Erabiltzaileak ez dira zuzenean apalategietara joango** liburuak hartzeko; liburutegiko arduradunari eskatu beharko zaizkio. |
| Asimismo, se establece un máximo de consulta diario de 3 obras por cada Letrada/o, con el límite de 6 por semana (incluyendo las solicitadas por el sistema de préstamo), en atención a la cuarentena de 14 días a la que deben someterse para poder ser usadas nuevamente. | Era berean, erabiltzaile bakoitzak gehienez 3 liburu kontsultatu ahal izango ditu egunero, astean 6 gehienez (mailegu-sistemak eskatutakoak barne), berriz erabili ahal izateko bete behar duten 14 eguneko berrogeialdia kontuan hartuta. |
| Se recomienda a los/as usuarios/as que hayan identificado la obra o publicación que se quiera consultar con anterioridad, accediendo a la base de datos existente en la web colegial. | Aldez aurretik kontsultatu nahi den obra edo argitalpena identifikatzeko gomendatzen zaie erabiltzaileei, elkargoaren webgunean dagoen datu-basean sartuta. |
| Se mantendrá el sistema de **préstamo de Obras** puesto en marcha durante este período, así como la recogida y devolución de estas en el hall de entrada de la sede. | Aldi horretan abian jarritako **liburuen mailegu-sistemari** eutsiko zaio, bai eta obra horiek egoitzako sarrerako hallean jaso eta itzultzeari ere. |
| Se aconseja limitar al mínimo imprescindible por los/as usuarios/as el uso de las impresoras de la Biblioteca, procurando la utilización de pen-drives y el envío electrónico de lo seleccionado, este último servicio existente en casi todas las plataformas. El cobro de las tarjetas de las fotocopiadoras no se realizará en metálico, a final de mes se girará un recibo bancario por el importe de las adquiridas. | Erabiltzaileek liburutegiko inprimagailuen erabilera ahalik eta gehien mugatzea gomendatzen da, pen-driveak erabiltzen eta aukeratutakoa elektronikoki bidaltzen saiatuz; azken zerbitzu hori ia plataforma guztietan eskaintzen da. Fotokopiagailuetako txartelak ez dira eskudirutan kobratuko; hilaren amaieran bankuko ordainagiri bat bidaliko da erositako txartelen zenbatekoarekin. |
| **2.- Sedes en los diferentes Palacios de Justicia.** | **2.- Elkargoaren egoitzak justizia-jauregietan** |
| Se mantendrán abiertas en su horario habitual, en las mismas condiciones que se establecieron en nuestra circular de reapertura del 11 de mayo y con los aforos que se señalan en la entrada de cada sede. También estarán a disposición de los colegiados/as los ordenadores de consulta existentes. | Ohiko ordutegian egongo dira irekita, maiatzaren 11ko zirkularrean ezarritako baldintza berberetan eta egoitza bakoitzaren sarreran adierazitako edukierekin. Kontsulta-ordenagailuak ere elkargokideen eskura egongo dira. |
| *Para acceder a cualesquiera de las sedes colegiales e instalaciones de las mismas, será OBLIGATORIO PORTAR MASCARILLA SANITARIA y lavarse las manos con los geles ubicados en las entradas.* | *Elkargoaren edozein egoitzatan eta instalaziotan sartzeko, NAHITAEZKOA IZANGO DA OSASUN-MASKARA eramatea eta eskuak garbitzea sarreretan egongo diren gelekin.* |
| Conforme las autoridades Sanitarias avancen y permitan progresivamente la ampliación de su uso, la Junta irá adoptando las medidas oportunas que se te notificarán | Osasun-agintariek aurrera egin ahala, Batzordeak unean-unean jakinaraziko zaizkizun neurri egokiak hartuko ditu, betiere erabiltzaile guztien osasun-segurtasuneko baldintza egokiak zaintzeko ahalik eta zuhurtasun eta erantzukizunik handienarekin. |

| | |
|---|---|
| puntualmente, siempre guiadas por la máxima prudencia y responsabilidad de cara a preservar las debidas condiciones de seguridad sanitaria de todas/os los usuarios.<br><br>En la confianza de que esta información haya resultado de tu interés,<br><br>Recibe un saludo, | Informazio hau interesgarria izango delakoan,<br><br>Jaso ezazu agur bero bat, |

**LUIS JAVIER SANTAFÉ MÉNDEZ**
**SECRETARIO / IDAZKARIA**